

Botaba, euskal esamoldeen erronka: “2020ko Donostia Festibalerako sarreren zozketaren lege oinarriak”

Enpresa antolatzailearen identifikazioa

Labayru Fundazioa, zerga-egoitza Colon de Larreategi kalea 14, 2. esk, Bilbo eta IFK R4800525J duena.

Zozketaren hasiera eta amaiera datak eta eremu geografikoa

Zozketaren hasiera-data 2019ko urriaren 25ean, ostirala, 14:00etan izango da, eta urriaren 30ean, asteazkena, 21:00etan amaituko da. Epealdi horretan soilik parte hartu ahal izango da.

Kanpaina Botabaren Instagram kanala jarraitzen duten erabiltzaileei zuzenduta dago.

Labayru Fundazioak, ezinbesteko kasuan, zozketaren aldia atzeratu edo zabaltzeko eskubidea izango du.

Parte hartzeko arauak eta baldintzak

Botabaren kanala Instagramen jarraitzen duten 14 urtetik gorako pertsona fisikoek parte hartu ahal izango dute zozketan.

Parte hartzeko, esamolde bat aukeratu eta esamolde hori argazki batean irudikatu behar dute. Argazki hori euren instagram kontura igo behar dute eta @botabaerronka etiketatu. Iruzkinean zein esamolde erabili duten esan behar dute. Euskal esamolde bat izan beharko da; beraz, ez dira onartuko atsotitzak edo esaera zaharrak, edo bestelako erantzunak.

Pertsonen, entitateen edo kolektiboenganako errespetu falta edo gutxiespenak dituzten iruzkinak ere ez dira onartuko.

Labayru Fundazioak eskubidea izango du zozketaren garapenean aldaketak egiteko, ondo burutzea galarazten duen arrazoiren bat sortuko balitz.

Irabazlearen hautaketa eta zozketa-mota

Zozketa urriaren 31n, osteguna, egingo da Easypromos aplikazioaren bitartez, hautaketa ausazkoa izan dela ziurtatuko duena.

Irabazle bat hautatuko da, eta beste bat ere gordeko da erreserba gisa. Irabazlearen izena urriaren 31n bertan argitaratuko da Botabaren Instagrameko kontuan, eta bertatik jarriko gara harremanetan irabazlearekin.

Labayru Fundazioa edozein erantzukizunetik salbuetsita dago, irabazleak edo ordezkioak emandako datuetan identifikatzea eragozten duen akatsik balego.

Eskainitako sariaren balioa eta izaera

Saria 2020ko Donostia Festibalerako 4 sarrera izango dira.

Izaera pertsonaleko datuen babesa

Parte hartzen duten pertsonak emandako datuak isilpean tratatuko dira eta izaera pertsonaleko datuen fitxategi automatizatuan bilduko dira, Labayru Fundazioa fitxategi horren titularra eta erantzulea litzatekeelarik, ondoko helburuekin:

- Lehiakideen parte-hartzea kudeatzea eta eurekin harremanetan jartzea.
- Zozketaren irabazleak izan direla jakinaraztea.

Labayru Fundazioak abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoa eta Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrari buruzkoa osorik betetzea bermatzen du lehiaketan bildutako datu pertsonalen trataeran, bereziki, lehiakideen informatzeko, sartzeko, zuzentzeko, aurka egiteko eta ezerezteko eskubideak egikaritzeari dagokionez.

Lege oinarrien onarpena

Zozketan parte hartzeak berak berariaz inplikatzen du legezko era eta baldintza hauek onartzen direla. Lege oinarri guztiak edo zati bat ez onartzeak parte-hartzailea baztertzea inplikatuko du eta, ondorioz, Labayru Fundazioa aske geratuko da pertsona horrekin hartu duen betebeharra betetzeko.

Instagramen lotura amaitzea

Instagramek ez du inola ere babesten, bermatzen, ezta kudeatzen ere ekimen hau, ez du zozketa honekin loturarik.